


Garai batean sagardotegiak bertsolarien sehaska ziren. Afalostean, bertsolariek kantatzeko ohitura zuten, eta gazteak upelen artean hasten ziren bertsoak jendaurrean botatzen. Egun, jende-oldea joan ohi da sagardotegietara, gehienetan ez da izaten bertsoak kantatu eta entzuteko giro egoki eta ondorioz bertsolariek nahiago izaten dute sagardotegietara afaltzera joan, jende orok egiten duen bezala. Paulo Txikiarekin eta aurreko garai horretan beste hainbat lekukorekin izan gara, eta baita gazteagoak diren bertsolariekin ere. Horieta bazuak, gainera, bertsotan adierazi digute iritzia. Joxi U.

Kupelen artean bertsoak poto



Egun, sagardotegietan ez dago bertsotan egiteko giro aproposik, eta gasteak nahiko dute afaltzera joan lagunekin. E. KOCH

Lehen, arraina edo haragia jan eta sagardo apur bat edan ondoren, bertsotan egiteko ohitura handia zegoen. Baina gaur egun jende ugari joan ohi da sagardoaren laguntzaz afaltzera, eta ondorioz zila izaten da bertsoarako giro egokia aurkitzea. Hala ere, Joxe Agirre bertsolariek esan digunez, orain ere sagardotegietara joaten gara, ostiral honetarako abisu bat neukan nik bertsotara joateko. Dena den, orain fama hori ez daukate sagardotegi bertsotarako, garai batean bezala.

Joxe Agirrek adierazi digunez, garai bateko sagardotegien eta egungoen artean, alde izugarria dago. «Lehen sagardotegi txikiak ziren denak, eta orain Salazar, Petritegi eta leku askotan 200 eta 300 lagun joaten dira». Joxe Agirreraren hitzetan: «Garai bateko sagardotegiekin ez dago konparatzerik. Sagardotegi ezagun horietara jende erdalduna ere asko joaten da».

Giroa aldatu egin da. Joxe Agirrek komentatu digu Lazkao Txikiarekin izanda dagoela lehen alpturiko Salazar sagardotegian,

«behin edo bitan izan ginen, bertsotara joanda, berak abisatuta». Hala ere, ez zen oso gustura aritu sagardotegian bertsotan, «batzuk bertsoak entzuteko amorratzen eta beste batzuk isildu ere ez dira egiten, eta horrela badakizu, jai dago».

Joxe Agirrek gehitu digunez, sagardotegia bertsotan egiteko gustuko tokia zuen lehen, «bestelako jaialdietan baino gusturago ibiltzen nintzen. Sagardotegian barruan, lagun artean, gusturago kantatu izan dut neuk behintzat, baina horretarako ere giro aproposa behar da, barruan

giro txarra baldin bada alferrik baita».

Manuel Lasarte ere sarritan ibili zen bertsotan sagardotegietan, «koardian joaten ginen. Afari bat prestatzen zutela eta bertsolariek behar zituztela eta delitzen ziguten». Orduan, jende asko ez zen biltzen sagardotegietara afarietan.

Iluntzeko zortziak edo bederatziarako joaten zirela esan digu Manuel Lasartek, eta askotan goizaldean irten ohi ziren sagardotegitik. Arraina eta haragi erra izaten zen jateko, «eta sagardoa txotxetiki». Janalditxo bat egin, txotx atera, txandaka edalontzia bete eta zurrutada batez edalontzia hustu. Berriro mahatara etorri, eta beste janalditxo bat. «Ez ziguten agintzen lehenengotik bertsoak kantatzeko, jendea pixka bat ase arte ez genuen kantatzen. Sagardotegian aldamenen bati ostiaua izaten da, eta sagardotegian nahikoa edan ondoren, kafea eta hartzen genituen han. Eserita, beste bertso saio bat egiten genuen ostiaua. Aurretik, sagardotegian zutik kantatzen genituen bertsoak».

Uztapide, Aierbe, Lizaso eta Lazkao bertsolariekin aritzen zela kontatu digu Lasartek. «Ikazken zen moduan». Sagardotegietan 20, 30, 40 lagun inguru biltzen ziren, gukxago ere bai. Azken urteotan Lasarte ez da sagardotegietan ibili, «irratiz en-

tzun eta egunkarietan irakurtu dudanez, anuntziatzen dira bertso afariak eta sagardotegietan Soinu joleak, trikitilariak eta abar, eta gure garaiaren bertsolariek bakarrik izaten ziren».

Inaki Elizmendi Basarri-k ere oso ondo ezagutzen du sagardotegietako garai bateko giroa. «Hizkuntza ere orain baino dartsuagoa zen, eta jendeak guttura egiten zuen bertsotan. Zletasun handiagoa zegoen, orain ez bezala», alpatu digu: «Hortan jatorrasuna, berezotasuna, ez da inoiz galitzen, eta oraindik ere ohiturak jarraitzen dituzte, baina lehen bezala indarrak ez dauka».

Sagardotegiak moda bilakatu da gaur egun jende ugari joaten da, baina lehen oso naturala zen hori, herri guztia euskalduna zen. Basarri aspimarratu digunez, «orain jende asko joaten da, baina ez da lehengo gauza bera, lehengo jatorrasun bera, berezkoa zen, eta orain, bertsoa pixka bat artifiziala da giroa».

Denbora gutxian aldatutako giroa

MAIALEN LUJANDIO hernandiarra denez, ederki ezagutzen du egungo sagardotegietako giroa. «Ikusita orain zenbaterainoko muntaila dagoen egina eta zenbat jende mugitzen duen, bertsotan egitea ezinezko bihurtzen da». Herriko Maialen Lujanbik kanpaina batean parte hartu zuen sagardotegietan bertsoak kantatzea bultzatuz. «Jakina da badagoela horretara ez doan jende ugari, erdaldun pila dagoela, eta ondorioz, txikietan bai, baina sagardotegi heste eta handi balaen artean da bertsotan egiten jende guztia renizat». Lujanbik alpatu digunez, «lagunekin joaten zarenean askotan kantari bukatzen dute baina egun bertsolari gutxi joaten dira bertso afariak egitera sagardotegietara».

Anjel Mari Peñagarikanok oroimen politak ditu sagardotegien inguruan. «Bertsotan hasi aurretik, sagardotegietan kantatu nituen lehen bertsoak jendaurrean. Sasibertsolariok Peñarota eta Txirritaren bertsoak kantatzen genituen». Sagardotegietako giroa aldatu egin dela ikusi du Peñagarikanok. «Lehen baserri inguruko jendea joaten ginen, baina egun batetik beste aldatu da giroa». Andoni Egadren aburuz, «bertsolariek ez gela lehen baino alferriagoak edo lagileagoak, baina bertsotan egiteko testuingurua behar da».

IMANOL LAZKANO



Aintzina hartan bertso iturri gendun kupelen zipotza: gozatzen zuen aho sayara poztu ohi zuen bihotza. Händik aurrera nabaria zen oihu eta bertso hota, garai bateko bertso eskola ez zen izanaren lotsa.

Alilatu gera jokabiletan, aldatu ikuspegiak, zipotza ere astindu ohi da izanpon usai gelinegian. Erdara ere horrexegatik hurbildu zain agian, bertsoarentzat ez da lekurik gaurko sagardotegian.

SEBASTIAN LIZASO



San Sebastian inguruan da lehenengo txupimazoa, hainbat sagardotegietara zuzentzen degu pausoa. «Txotx» oihukatzen hasi orduko presiatu gure basoa, umorearen oinarri baita moduko 'mamá gozosa'.

Goitikan bota, behetik hartu la izango du aparrik, la hutz-beroa fresko antzean ez du holtzaren beharrik. Botilutik edan genzake trago goxo la elarrik: urte gutxian dala detagun, ez txotx garaiak bakarrik.

MANOLO AROZENA



Sagardotegi eta bertsoa antzinako ustarrak, ase ohi gendun bertsoaren eta beste egarria. Sartu ordiko ikus daitke oraingo moda berria: bertsonik gabé ere ederki gozatzen dela herria.

Nahiz sagardoak sorrarazten duden bertsoarako kemena juerga lekua horretarako ez da izaten onena. Jan eta edan, primeran pasa, egin dezakezu dena, baina bertsotan ez hasi hobe bertsoa maite duena

INAKI MURUA



Lagun arteko bertso sehaska zinen herenegun baino... Gune bildua zintugun atzo, gaur esparru zabala aino: hurbiltzen zaizun jendeak ere du hizkuntza desberdina. Zeregin gabe gelditu da hor bertsoaren zeregina.

Sagardotegi bati baino gehio bertsozale purrakatu baina aurkako giroan kontra zertarako burrikatu? Goraiek dakar erludaketa ezin da hori ukatu. Bertsolari bera ez al da beste hainbeste aldatu?